



FARMAZIA – ARABAKO ESI-A
Lehen Mailako Arretako Farmazia
e-mail.: farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus

Apirila 2025	
BERRITASUNAK PRESBIDEN - Finantzatu gabeko indikazioak dituzten bisatudun medikamentuak - Atzerriko medikamentuen kode berriak sartzea - Presbide oharra: azido azetilsalizilikoa 300 mg konprimitu (Adiro® 300 mg, AAS® 300 mg)	1 Jarraitu irakurtzen
II. LEHEN MAILAKO ARRETAKO JARDUNALDIA	2 Jarraitu irakurtzen
MEDIKAMENTUEN SEGURTASUNA AEMPSren gizakien erabilerarako medikamentuen segurtasunari buruzko buletina	3 Jarraitu irakurtzen
ARGITALPEN INTERESGARRIAK - Aztertuko den medikamentu berria: abaloparatida - Lehen Mailako Arretan Iktusa maneiatzeari buruzko Praktika Klinikoko Gida (Guía Salud) 2. motako diabetesean tratamendu farmakologikoa optimizatzea: Lehen Mailako Arretako Farmaziaren rola (SEFAP) - Eskuliburua: “The mechanics of tackling overprescribing and problematic polypharmacy” (The Health Innovation Network) - Pazientearentzako baliabide erabilgarriak medikazioa berrikustean: “English resources to support patients having a Structured Medication Review”	4 Jarraitu irakurtzen
MEDIKAMENTUEN HORNIDURA-GABEZIAK ETA - BERREZARPENAK	5 Jarraitu irakurtzen

1	BERRITASUNAK PRESBIDEN
Finantzatu gabeko indikazioak dituzten bisatudun medikamentuak	
Presbiden finantzatu gabeko indikazioetarako preskribatu daitezkeen bisatudun medikamentuen zerrenda handitu da. Zerrenda (2025eko martxoan eguneratua) honako esteka honetan dago eskuragarri: Finantzatu gabeko indikazioak dituzten bisatudun medikamentuak. Honako printzipio aktibo berri hauek (ATC) sartu dira: azitretina, tirbanibulina, isotretinoina, alitretinoina (dermatologo pribatuen preskripzioak HFTn sartzeko), etonogestrel (Implanon® 18-40 urte	

bitartekoak ez diren emakumeentzako), eta lasmiditan eta errimegepant (bisaturako baldintzak betetzen ez dituen migrainarako).

2019ko otsaileko [dokumentu](#) honetan, Presbiden eman beharreko urratsak jasotzen dira bisatudun medikamentu bat preskribatzeko finantzatu GABEKO indikazio batean.

Atzerriko medikamentuen kode berriak sartzea

Atzerriko medikamentuen kode berriak sartu dira eRezeta sisteman eta Presbiden ere bai. Kodeak kasuan kasuko atzerriko medikazioaren DOEak dira; horrela, Presbiden erregistratuta geratzen da eta errezeta ofiziala paperean preskribatu beharra saihesten da.

Presbide oharra: azido azetilsalizilikoa 300 mg 30 konprimitu (Adiro® 300 mg, AAS® 300 mg)

Laster "azido azetilsalizilikoa 300mg 30 konprimitu" (DOE: 000961) izeneko aurkezpen guztiak merkatutik kenduko dira. 300 mgko kapsulen aurkezpenak merkatuan jarraituko du. Presbiden ondorengo abisua sortu da:

“Merkatutik kenduko da. Beste alternatiba batzuk baloratu, AAS 100 mg-ko dosia ere kontuan hartuz”.

Merkatutik kentzeak aukera ematen du pazientearen tratamendua berrikusteko eta dosiak bere egoera klinikora egokitzen diren ikusteko.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

2

II. LEHEN MAILAKO ARRETA KO JARDUNALDIA

Martxoaren 26an Lehen Mailako Arretako II. Jardunaldia izan zen Euskalduna Jauregian. Jardunaldian aurkeztutako Esperientzien eta Ikerketen Ahozko Komunikazioak eta Póster batzen dituen dokumentua argitaratu da. Kontsultatu nahi izanez gero, honako hau da [esteka](#).

[HASIERA-ra Itzuli](#)

3

MEDIKAMENTUEN SEGURTASUNA

Gizakien Erabilerarako Medikamentuen Segurtasunari buruzko Buletina

Sendagaien eta Osasun Gaiien Espainiako Agentziak (AEMPS) Gizakien Erabilerarako Medikamentuen Segurtasunari buruzko urtarileko [buletina](#) argitaratu du. Bertan jasotzen dira Espainian merkaturatzen diren gizakien erabilerarako medikamentuen farmakozaintzako datuen ebaluazioan oinarritutako segurtasun informazioa, bai eta Agentziaren webguneko beste argitalpen batzuk ere. Honako medikamentu hauek dira nabarmentzekoak ebaluatutakoaren artean: fezolinetant, fenfluramina, latanoprost / netarsudil, txerto hirukoitz birikoa, apixaban.



Boletín sobre Seguridad de Medicamentos de Uso Humano. Enero de 2025

[HASIERA-ra Itzuli](#)

Aztertuko den medikamentu berria: abaloparatida

Euskadiko Medikamentu Berrien Ebaluazio Batzordeak (CENM) honako ebaluazio-fitxa hau aurkeztu du: “Abaloparatida: PTHren beste analogo bat, eraginkorra ez dena eta ziurgabetasun handiagoa pizten duena segurtasunari dagokionez”.

Abaloparatida PTHren bigarren analogoa da, teriparatidaren ostekoa, haustura-arrisku handiagoa agertzen duten menopausia osteko emakumeengan osteoporosia tratatzeko baimendua. Efikaziari, segurtasunari eta kostuari buruzko datuak kontuan hartuta, honela sailkatu da: “ez dakar aurrerapen terapeutikorik”. Gomendatzen dizuegu fitxa berri hori irakurtzea, [esteka](#) honen bidez.

AEMPSk 2025eko urtarrilean argitaratutako abaloparatidari buruzko posizionamendu terapeutikoko txostena [esteka](#) honetan dago eskuragarri.

Lehen Mailako Arretan Iktusa maneiatzeko buruzko Praktika Klinikoko Gida (Guía Salud)

Osasun Ministerioak berriki eguneratu du Lehen Mailako Arretan Iktusa maneiatzeko buruzko Praktika Klinikoko Gida. Gida hori eta material metodologikoa [esteka](#) honetan kontsultatu daitezke. Gidak helburutzat du LMAko profesional sanitarioei laguntzea iktusa nahiz atake iskemiko iragankorra izateko susmoa duen pertsona heldua artatzen eta zaintzen.


2 motako diabetesen tratamendu farmakologikoa optimizatzea: Lehen Mailako Arretako Farmaziaren rola (SEFAP)

Lehen Mailako Arretako Farmazialarien Espainiako Elkartearen (SEFAP) blogak [sarrera](#) berri bat argitaratu du 2 motako diabetesaren (DM2) tratamendu farmakologikoa optimizatzearen inguruan, esku-hartzeko azterlan batean oinarrituta. Azterlan horretan ondorioztatzen denez, **LMAko medikuen eta LMAFen arteko lankidetzak garrantzitsua da** DM2aren tratamendu farmakologikoa optimizatzeke; garrantzitsua da, halaber, **tratamendu farmakologikoa banakakoa izatea** DM2an.

Eskuliburua: “The mechanics of tackling overprescribing and problematic polypharmacy” (The Health Innovation Network)




Gehiegizko preskripzioari eta polifarmaziarekin lotutako arazoei heltzeko tresnak ematea helburutzat duen [eskuliburu](#) hori argitaratu da. Pazienteen kasu errealak erabili dira eta honako analogia honi jarraikiz garatu da: pazienteak gidaria da, haren gorputza autoa, eta medikua mekanikaria.



Pazientearentzako baliabide erabilgarriak medikazioa berrikustean: “English resources to support patients having a Structured Medication Review”

[Hemen](#) deskargatu daitezke zenbait dokumentu lagungarri medikazioaren berrikuspen egituratua egiten zaien pazienteentzako. Besteak beste, baliabideak eta informazio-orriak nahiz sintomei jarraipena egiten laguntzekoak hartzen ditu barnean.



5 MEDIKAMENTUEN HORNIDURA-GABEZIAK ETA - BERREZARPENAK

Hona hemen hilabete honetako HORNIDURA-GABEZIArik garrantzitsuenak:

- Zefixima, Errifampizina, Trimetoprima eta Fluorourazilo/Az. salizilikoa.

Farmazia-alerta dela eta, zefixima konprimituen loteak baztertu egin dira. Hori dela eta, eta hornidura-gabeziak irauten duen bitartean, **baimendu da zefixima konprimituak zefixima kapsulengatik aldatzea**, preskripzio elektronikoetan nahiz paperezkoetan. **Ez da preskripzioetan aldaketarik egin behar eta farmazia komunitarioetan alternatiba dispentsatu ahalko da.**

HORNIDURA-BERREZARPENAK:

- Betametasona injektagarria, Kloxazilina, Finasterida, Klotrimazol eta Teofilina.

PRESBIDEN “Hornidura-gabezia” botoia eskuragarri dago, “Preskripzioen kontsulta” pantailaren beheko aldean, hornidura-gabeziei buruzko informazio erabilgarria erakusten duena.



Hornidura-gabeziak esteka honetan kontsulta daitezke:

- Presbide: [Hornidura-gabezien taula](#)
- CIMA-AEMPSen: [AEMPSen medikamentuak hornitzeko arazoak](#)

Lehen Mailako Arretako Farmazia

ARABako ESI-A: farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus

Farmazialariak: Arantza Hernández, Javier Martínez, Inés San José eta María Prieto.



Argitalpen honen edukia Osakidetza Lehen Mailako Arretako farmazialariek egindako hileroko buletinetik egokitu da FarmaHitzak buletinak Osakidetzaren intranetean daude eskuragarri hurrengo [estekaren](#) bidez